

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onartzea ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2016ko errolda

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrio Arabako Udaleko alkate naizen honek

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko ekainaren 16ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2016ko zerga erroldari (61001C2121 espediente), eta argitara eman zen erabakia 2016ko ekainaren 29ko ALHAOn (73. zk.) iragarkia argitaratuta. Erabaki horren kontra erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta bat ere aurkeztu ez denez, erabakia behin betiko bihurtu da, eta hala jakinarazten da jendaurrean, Arabako Zergen Foru Arauaren 98.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa).

2016ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun balioudunetan (biak barne), borondatezko epean ordaindu ahal izango dira ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2016ko erreziboak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek zerga zorra Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:30era, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kuotari ehuneko 20ra arteko errenergua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga bilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorriz; errenergua hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko abuztuaren 17a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA